

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Behin-behineko neurri zibilen garrantzia genero indarkerian: erabateko babesak daukate?

Egilea

Leire Morato Herrera

Gradua

Zuzenbidea

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

5. Genero berdintasuna,
10. Desberdintasunak murriztea,
16. Bakea; justizia eta instituzio sendoak

Laburpena

Jakin badakigu, azken urteotan emakumeen aurkako indarkeria pil-pilean dagoen gai bat dela eta emakumea soilik izateagatik pairatzen den indarkeria gero eta anitzagoa dela eta pisu handiagoa duela gure gizartean. Horrenbestez, Gradu Amaierako Lan honen helburua da arlo zibilaren ikuspuntutik genero indarkeriaren biktimen babesak nolakoak den aztertzea, izan ere, emakumea zein bere kargura dauden adingabeak erabat babesturik egoteko neurri penalez gain, neurri zibilak kontuan hartu behar dira. Horretarako, "genero indarkeria" kontzeptuaren inguruan sortutako zalantzak argitu dira eta jarraian, kasu erreal batetik abiatuz, zigor prozesuan zehar hartu daitezkeen kautelazko neurrien artean, Babes Agindua aztertu da. Zehazki, Babes Aginduaren bidez, "bigarren mailako biktimizazioa" saihestea lortu daitezkeen heinean, orden juridikzional penalarren eta zibilaren arteko koordinazioaren eta zigor prozeduran hartutako neurri zibilen gainean azterketa juridikoa egin da.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

IKDi3 (emakumearen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesak, disziplina arteko ikuspegitik) proiektuari esker aukera izan dut genero indarkeriaren inguruan nire Gradu Amaierako Lana prestatzeko. Horren ondorioz, nire GrALak genero berdintasunari, bi generoen arteko desberdintasunak murrizteari eta justizia eta instituzio sendoak izateari egiten die ekarpenak. Batez ere, 2030 Agendaren garapen iraunkorreko



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



aipatutako azken helburu horretan zentratu naiz, hots, emakumearen kontrako indarkeria egoeretan bai emakumeak bai haien seme alabak auzitegietatik jasotzen duten bermean.